

COVID-19AREN PANDEMIA ETA BERE ONDORIOAK
(2021eko urria)
Prensa oharra

SARRERA

Azterlan honen gaia izan da Euskadiko biztanleek Covid-19aren pandemiari eta haren ondorioei buruz dituzten pertzepzio eta jarrerak. Landa-lana 2021eko urriaren 15etik 19ra egin zen.

KEZKA

Kezkak jarraitzen du

Biztanleriaren erdiak koronabirusagatiko kezka mantentzen du, osasun larrialdian ez bagaude ere. Honela, biztanleen % 13 oso kezkatuta daude, eta % 39 nahikoa kezkatuta, koronabirusaren hedapenarekin. % 38 ez daude oso kezkatuta, eta % 10 ez daude batere kezkatuta.

Edonola, jendeak itxaropen baikorra du bilakaerari buruz. Izan ere, biztanleriaren % 9k bakarrik uste du probabilitate handia dagoela Euskadin Covidaren beste olatu bat gertatzeko, % 26k dezenteko probabilitatea. Aldiz, % 48k probabilitate txikia dagoela uste dute, eta % 6k batere probabilitaterik ez.

Egoera emozional pertsonala positiboa da, eta 7,2 puntutan kokatzen da 0tik 10erako eskalan.

Pandemiaren alderdi zehatz batzuek sortarazten dieten kezkari buruz galdetuta, herritarrek kezka maila handia adierazi dute. Ondokoei buruzko kezka da nabarmenena: jendearen buruko osasunaren gaineko ondorioak (% 89 oso edo nahikoa kezkatuta daude), jendearen ongizate emozional edo psikologikoaren gaineko ondorioak (% 89) eta Euskadiko ekonomiaren gaineko ondorioak (% 88). Neurri txikiagoan bada ere, oso hedatua dago halaber inguru hurbileko norbait gaixotu ahal izateagatiko kezka (% 77) eta norbera gaixotu ahal izateagatikoa (% 56).

COVIDAREN AURREKO JARDUERAREN BALORAZIOA

Osakidetzaren balorazio oso ona

Herritarrek 10etik 7,5 punturekin balioesten dute Osakidetza Covid-19a duten gaixoei ematen ari zaien arreta.

Krisi honetan Eusko Jaurlaritzak izandako jarduerak 6,3ko puntuazioa lortu du herritarren aldetik; Espainiako Gobernuak 5,3 puntu, eta Europar Batasunak 5,4 puntu. Euskadiko herritarrek 5,2 punturekin baloratu dute pandemiari aurre egiteko herrialdeen artean egon den elkarlana.

Bestalde, herritarrek 8,6ko puntuazioa eman diote osasun-arloko profesionalen jokabideari, eta 7,6koa zientzialarienari. Biztanleriak puntuazio baxuagoa eman diote herritarrek oro har izandako jokabideari (6,1).

PANDEMIAREN ONDORIOAK

Bizitza sozialaren berreskurapena

Ikerketak aztertu ditu pandemiak gizarte bizitzan izandako eraginari buruz herritarrek dituzten pertzepzioak; berreskuratze sententzia dago. Hala, bi herritarretik batek (%48k) dio, gaur egun duten bizitza pandemiaren aurretik zutenarekin alderatuta, beren bizitza ez dela aldatu eta % 8k beren bizitza hobetu egin dela. Aldiz, % 43ren iritziz, beren bizitza okerragotu egin da.

Eragin ezkorrenak bizitza sozialean eta harremanetan hauteman dira (% 56k diote okerragotu direla) eta ongizate emozional eta psikologikoan (% 39). Eragin ezkorra gutxiago nabaritu da norbere egoera ekonomikoan (% 20) eta osasunean (% 18).

Ekonomia suspertzeko itxaropenari dagokionez, herritarren % 45ek uste dute euskal ekonomia 2023an edo geroago suspertuko dela, eta % 30ek 2022an suspertuko dela.

Herritarren % 50ek uste dute Europar Batasunaren Next Generation plana oso edo nahikoa eraginkorra izango dela pandemiak ekonomian izandako ondorioei erantzuteko, eta % 33k ez dela oso eraginkorra edo ez dela batere eraginkorra izango.

PREBENTZIO NEURRIAK

Zuhurtzia sozial handiena eta musukoaren aldeko jarrera

Herritarren %38ren ustez, koronabirusari aurre egiteko Euskadin hartutako neurri murriztaileak guztiz justifikatuta zeuden eta % 43ren ustez justifikatuta zeuden neurri batean. Bakarrik % 11k diote ez zeudela oso justifikatuta eta % 4k ez zeudela batere justifikatuta. Adinean aurrera egin ahala, gero eta handiagoa da neurriak justifikatuta zeudela uste dutenen ehunekoa.

Babes handia Euskadin hartutako neurri murriztaileei. Hala, inkestatuen % 65ek diote Euskadin hartutako neurriak egokiak izan direla eta % 10ek, are, permisiboegiak izan direla; bakarrik %20k diote zorrotzeziak zirela. Kasu honetan

ere adinak eragin handia du; 18 eta 29 urte bitartekoen artean % 34k uste dute zorrotzegiak zirela, eta, aldiz, 64 urtetik gorakoaren artean % 7k.

Joan den urriaren 7an prebentzio neurri gehienak bertan behera uzteko erabakiari buruz galdetuta, zuhurtzia nagusitu da. Hala, herritarren % 52k diote momentu egokian hartu dela erabakia eta % 28k, are, goizegi hartu dela; bakarrik % 13k diote beranduegi hartu dela erabaki hori.

Biztanleriaren gehiengo zabala (% 79) leku itxietan musukoa erabiltzeko betebeharra mantentzearen aldekoa da, gutxienez beste hilabete batzuk. % 7k diote leku horietan musukorik ez erabiltzen utzi behar litzatekela eta % 11k utzi behar litzatekela txertatuta dagoen jendearen artean egonez gero.

12 urtetik beherako txertaketari dagokionez, adin horretako seme-alabak dituztenen % 48k diote, momentua iristean nahiago luketela txertoa jartzea, eta, aldiz, % 23k nahiago lukete ez jartzea. Gainerako % 27 ez daude ziur.

PANDEMIAREN ONDOKO GIZARTEA

Normaltasunera itzultzeko denbora beharko da

Euskal gizartearen gehiengoak uste du oraindik ere pandemiaren aurretik bezala bizitzeko denbora beharko dugula. % 39k uste dute 2022an izango dela, eta % 32k 2023an edo geroago. % 4k uste dute jada lehen bezala bizi garela eta beste % 4k urte bukaerarako hala egingo dugula. Bestalde, herritarren % 12k uste dute ez garela inoiz berriro lehen bezala biziko.

Iritziak nahikoa zatituta daude pandemiak gure ohituretako hainbat alderditan eragingo dituen aldaketen inguruan. Jendearen % 58k uste du asko edo dezente aldatuko dela lan egiteko modua, % 56k besteekin harremanak izateko modua, % 52k familia eta lana bateragarri egitea, % 49k bidaiak, eta, azkenik, % 36k uste du asko edo dezente aldatuko duela ingurumenarekiko dugun errespetua.

Pandemiaren ondorioz etorkizuneko beste larrialdi egoera batzuetarako hobeto prestatuak egongo garen galdetuta, % 19k uste dute askoz prestatuago egongo garela eta % 47k dezente. Biztanleen % 22k uste dute gutxi hobetuko dela gure prestakuntza eta % 8k batere ez.

Azkenik, Euskadiko biztanleriaren % 39k uste du, pandemiaren ondorioz, denon arazoei aurre egiteko nazioarteko elkarlana asko edo dezente handituko dela, eta % 51k uste du gutxi handituko dela edo batere ez.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.200 lagunek osatua da. Elkarriketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion agin errorearen estimazioa $\pm\%$ 2,89koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2021eko urriaren 15a eta 19a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 28a